

Ni bihurturiko zu bat: Lupe Gómezen *Camuflaxe*

SARRERA: JON KORTAZAR¹

POEMEN ITZULPENEA: JUAN KRUZ IGERABIDE

Askotan gertatu ohi zaidan moduan, adiskide batek aholkatu zidan Lupe Gómez Galiziako poetaren *Camuflaxe* irakurtzea. Imanol Bértolo izan zen aholkua eman zidana, Madrilen argitalpen lana egiten duen adiskidea. Argitaratzeko asmoz zebilen, eta nire iritzia jakin nahian edo bidali zidan liburua.

Harrezkero, liburu kutunetarikoa bihurtu zait, eta han eta hemen bultzatu dut haren irakurketa, adiskideak aspertu arte baztuetan.

Lupe Gómez A Coruñaeko Fisteus herri txikian jaio zen. Batxilergoa egin zuen A Coruña hirian eta Kazetaritza Santiago de Compostelako Unibertsitatean. Ezaguna egin zen Galiziako poesiaren munduan 1995. urtean, *Pornografía* liburua argitaratu zuenean, aldaketa karga agerian utziz. Probokatzailatzat hartu izan da liburua, baina

egileak indar hori kendu nahi dio: «Nunca me sentí identificada con la etiqueta de provocadora porque no escribí *Pornografía* para molestar a nadie, me salió de una forma espontánea» (Vizoso, 2020).

1999an etorri zen bigarren kolpea: *Os teus dedos na miña braga con regra*. Hala, kontzientzia feminista areagotu zen. Ondoren, beste poema liburu gehiago etorri dira, antzerki lanak, elkarrizketa liburuak, eta haur eta gazte literatura ere bai.

2019an eta 2020an, argitalpen entzute-tsuak ekarri zituen plazara, eta izurrite aroa idatziz bete duela esan dezakegu. 2019an, gutun bilduma bat eman zuen argitara, *Fosforescencias* izenburuarekin. Urte hartako Galiziako libururik ederrena zela aldarrikatu zuen sari batek; izan ere, SELIC saria irabazi zuen, *Os caracois de Belvís* liburua-ekin, 2020an argitaratua. 2020an, Rosalía

1. Artikulu hau Eusko Jaurlaritzak eratzten duen Ikerketa Talde Finkoen Sarean kokaturik dagoen eta Euskal Herriko Unibertsitateak onartu duen LAIDA (Literatura eta Identitate) Ikerketa Taldearen (IT 1397/19, GIU 20/26) eginkizunen barnean osatu da.

de Castro Saria lortu zuen, *No encanto do aire* lanarekin, zeina argitaratzear baitago. *Silabario da peste* poema liburuak A Coruñaako Aldundiak ematen duen González Garcés saria jaso zuen, eta, azkenez, *Coplas a Lola* poema laburren bildumak Cornelláko xxxiv. Rosalía de Castro lehiaketa irabazi zuen. Bost sari urte bitan, beraz.

Camuflaxe lanak 2016ko lege gordailua du, baina 2017ko urtarrilean argitaratu zen, eta argitalpen hori erabili dugu gure irakurketarako (aipuetan, orrialde-zenbakia adieraziko dugu). 2018an, Kritika Saria jaso zuen. Eta, 2019an, gaztelaniaz eman zuen Imanol Bértolok, Papeles mínimos etxean. New Yorken, Circumference Books argitalletxeak eman zuen ingeleseko itzulpena, eta Best Translation Book Award sarian finalista izan da. Hilabete bitan ahitu zen lehen argitalpena, eta, martxorako, bigarrena zegoen plazan. Kolofoian, argi utzi zuten zein izan zen inprimaketa eguna:

Este libro rematouse de imprimir o 20 de Xaneiro, o mesmo día en que morreu a miña nai Celestina Arto Pérez, no año 2013. A sua morte transformouse en lume, en parto de herba, canción. (107)

Poema liburua ama-alaben arteko el-karrizketa da, eta beharbada itxuraldaketa bat. Alabaren jaiotzarekin hasten da poema bilduma, eta amaren heriotzarekin bukatu; tarte horretan, amak alaba jagon du haurtzaroan eta alabak ama zahartzaroan. Azpian badago kontakizun hari xume bat, baina oso fina, zeren kontakizunak pisu txikia du liburuan.

Sei ataletan banandu zuen poema liburua egileak. Eta, banaketa horretan, hari bi izan dira mundua tenkatzeko bideak. Hauek dira atal bakoitzaren izenburuak (103):

ENERXÍA SECRETA

Como por ensalmo

AS FONTES SALVAXES DO PARAÍSO

Salmo responsorial

O LÍMITE DE GALICIA

Dar a extremaunción

Letra larriz ageri diren testu zatiek liburua historia osatzen dute. Jaiotza, haurtzaroa eta amaren heriotza osteko bizitza, eta amarekin Pozan –Louron Muros herri-tik hurbil– elkarrekin igarotako opor batzuk kontakizun, ama zorionez haur bihurtu den aroa ospakizun. Letra txikiz ageri direnek, berriz, kutsu eta adierazpen erlijiosoak dute, eta esaldi indartsu bakarreko agerpenak dira. Izenburuek erlijioa eta erritua aipatzen dituzte; poemek, berriz, Galiziako zenbait aipamen egiten dituzte, hala nola geografia, hizkuntza... heriotza:

Zu zinen Galiziako kaligrafia maitea. (50)

Hizkuntzak nekazari hildako baten urdaillean dirau. (72)

HERIO zaldi zuri bat zen, ibaian bainatzen. (100)²

Camuflaxek antzaldaketa bi kontatzen ditu: ama alaba bihurtu da, eta alaba, liburua bukatzerako, ama. Haurtzaroan, amak zaindu du alaba, eta, haren bizitza bukatu ondoren, alabak ama zainduko du. Alaba-

2. Lehen bi itzulpenak nireak dira; hirugarrena, berriz, Juan Kruz Igerabiderena.

ren jaiotzarekin hasten da poema liburua, eta amaren heriotzarekin bukatu: «Ilargiaren hauskortasun barnekoian» eta istorio pertsonal eta barne-barneko horretan ageri da egilearen hizkuntza poetikoaren dohai-na, eta oroimena eta irudimena biltzen ditu esaldi argietan.

Arturo Casasek honela deskribatu du Lupe Gómezen lanean ageri den antzaldaketa, eta azpimarratu behar genuke irakaslearen artikulua eta iritzia *Camuflaxe* agertu aurretikoak direla:

Metamorfose: A más relevante é a discursiva na producción literaria da autora. O lugar no que concentrou o seu interese foi como é lóxico no apartado dramático, tanto no de intencionalidade teatral como no concretado na forma diálogo (*Diálogos imposíbeis*). Non é infrecuente que a metamorfose sexa recíproca nestes casos, tomando un personaxe como propia algunha das características que singularizan o outro. (2013: 171)

Eta Kelsi Vanadak (online) adierazi didanez, amaren omenezko liburua dugu *Camuflaxe*:

Mother. *Camouflage* is a beautiful tribute to and portrait of Gómez's mother, and to mother-daughter relationships. The book is dedicated to things and flowers held in the bodies of the women who preceded us.

Bizitzak eta heriotzak mugatzen dute ibilbidea, baina bide horretan badira hainbat pauso argi. Jaiotzarekin hasten da lana:

LAU UME ZENITUEN, eta berrogei urte.
Erditzea sukaldean izan zen,
Lurrezko zorua zuen etxe batean.
Nire odola zen zure sabel puztuarekiko lotura.

Egilearen jaiotzarekin hasten da istorioa, eta amaren heriotzarekin bukatzen. Bien artean, mundu oso bat dago. Mundu horretan, gauza asko aipatzen dira.

Lehen-lehenik, jaioterri nekazariari egindako omenaldia. Haurtzaroa Fisteus herrixkan egin zuen egileak, eta herri hori beraren mundu poetikoaren oinarria da. Askotan aipatu du Lupe Gómezek landa eremuak piztu duela bere irudimen mundua. Badauki galtzeko zorian dagoen mundu bat edo zuzenean galtzera doan mundu bat dela, eta horrek sortu dion egonezinak bere mundua ikusteko maitasunezko joera eman dio.

El País egunkarirako egindako elkarrizketa batean, honela adierazi zion sentipen hori Sonia Vizoso kazetariari: «La crisis social, política, económica, el desmoronamiento de todo, ese sentimiento de sentirse desnuda, a la intemperie» (Vizoso, 2020).

Horregatik hitz egiten die hildakoei, landa komunitateetan bizirik direnek eta hildakoek bat egiten baitute:

GEHIAGO GUSTATZEN ZAIT
gutunak hildako pertsoneri idaztea biziei baino.
Hildakook hobeto entzuten duzue. Amak ez zarete inoiz hiltzen.
Baudelaireren odol purpura bihurtzen zarete.

Masusta-likore.

Landa mundua, baina, ez da Lupe Gómezen poesian nostalgia huts; ekologiara, bizitza berri batera eramaten gaituen bidean, hasiera da baserria. Eta, haurtzaroak

bere lekua badu ere, ezin da baztertu izadiak haren lanean duen indarra.

Arturo Casasek, Lupe Gómezen poesian maisua bera, honela adierazi du haren joera ekologiko hori:

Resulta obvio que a aldea é Ítaca e placenta na poética de LG, polo que forma parte do réxime verbal de «regresar» e de «reclusión», pero non do de «estar». Nunha entrevista que lle fixo Emilio Araújo en 2001, LG dixo a maiores: «Eu son dunha aldea, un cosmos de violencia e dignidade» [...]. Eis o texto cultural chamado *aldea* ou casa dos país. (2013: 161).

Landa mundua, haurtzaroa eta ekologia loturik ageri dira haren poesian, eta ezin dira bata bestea gabe ulertu, ezin dira banatu, bata bestearen besotik dator. «Pinguelaren / errotara / ibaia oroimena asmatzeko sutan dagoen tokira». Izadia, horrela, memoria sortzeko tokia da.

Bigarrenik, ezin da Lupe Gómezen poesia ulertu historia pertsonala herri historia bihurtu duela ikusi gabe. Herria oso presente dago haren poesia osoan. Landa herria, Fisteus jaioterria, Galiziako gainbeheraren sinbolo gisa aurkezten du, eta horrela gertatzen da beste hainbat zeinurekin. Adibide bakarra ematearren:

Herrixkari distira zerion, Vietcongeko neska gerrillari bati bezala.

Utopia eta zentzu politikoa ezin dira banandu Lupe Gómezen poesiatik. Poesia horren deiarra, eta Lupe Gómezek aldarrika idatzi du bere poesia, bere herri xumeak jasotzen duen minetik sortu da, eta, horregatik, barne mundua berehala igarotzen da kolektibitatearen egoerara. Politika zentzu

bitan ageri da Lupe Gómezen poesian. Alde batetik, kontzientzia feminista ageri da, gorputzaren indarra aipatuz, eta sexuaren aipamena etengabea da haren lanetan, egia bada ere horren indarra moteltzen dela liburu honetan, nahiz eta ukatu ezinezkoa den aurretik plazaratu dituen liburuetan. Gai horretaz honela mintzo da Arturo Casas:

Corpo: En *Fisteus era un Mundo* (100-113) sobreenténdese que falar das mulleres é falar do corpo. Comesaña Besteiros [...] anota que *poesía* e *corpo* son sinónimos en LG. [...] Dá a entender que o adxectivo *fea* do título do terceiro libro poético da autora [*Poesía fea*] e o adxectivo *abxecto* aplicado aos fluídos corporais femininos (a todo o que a poesía de marca patriarcal non nomea) manteñen a mesma correlación que poesía e corpo. (2013: 166)

Horrez gain, baina, Galiziako herri xumearen agerpen politikoa maiz sumatzen da liburuan: egoera normala eta gizartearen agerpenak biltzen ditu, aurretiaz ikusi dugun bezala herrixka eta Vietcong mugimendua batera ekarriz. Ez da adibide bakarra. Liburuaren hasieran, Uxio Novoneyra poeta handiaren lehen esaldiak bide hori erakusten du: «Honela gara Lurrekoak, eta honela mintzo gara edo honela isildu». Eta lehen poeman jada «behien urdail politikoa» aipatzen du poetak, eta «Galiziako atzerapen ekonomikoa / abangoardia artistikoaren modu bat da», *HERIOTZA* proiektu politiko bat da. Eta, inon baino garbiago, esaten du poesiaren bidez «behartsuen arma eraikitzen dut».

Hirugarrenik, Lupe Gómezen hizkera poetikoaz badago zer esanik. Kelsi Vanadak

xuxen aipatu ditu hizkuntza horren zenbait ezaugarri nabarmen:

Imagination. Imaginative language that takes the reader into the space of poetic possibility abounds in this collection. Sometimes the author recalls her inventive child-mind, and sometimes the language must simply soar above everyday usage. (online)

Kopla zaharra ezagutzen dugunok maiz ikusiko dugu Lupe Gómezen poemen bukaeretan irudi poetiko indartsu bat, poema osoaren sentipena laburtuko lukeena eta irudi bakarrean mundu poetiko osoaren mina ekarriko lukeena. Liburuko azken poema horren adibidea da:

HERIO zaldi zuri bat zen, ibaian bainatzen.

Eta badirudi horrekin dena esanda dagoela. Dena dela, surrealismoz jantzi den herri joera horrek eman du zer esanik. Lupe Gómezek bere idazkeraren automatismoa defendatu du. Eta bide horretatik jo du Arturo Casasek poetaren idazkeraren deskribapenean:

Automatismo: LG ten escrito que nos comemos practicaba unha especie de escrita automática de filiación surrealista, algo que tería ido abandonando devagar. O automatismo estaría conectado cun saber pasivo non racionalizado nin verbalizado, de carácter pre-conceptual. Escribiu en *Poesía Fea*: “Eu non sei nada, / escribo o que me sae, / o que me vén de / dentro correndo” (*Poesía Fea*: 68). Non esteamos seguros diso. Intúese que existe unha gran canteira textual conformada por un corpus groso de palabras, cartas, intervencións, anotacións, conversas... que se foron xuntando e que a

presentación última consiste nun labor que ten algo que ver co da escultora: extraer da masa informe a forma plena e, por tanto, desbotar, eliminar, suprimir. (2013: 162)

Surrealismoa badago, baina herri kutsuak malguturik, herri eleak aberasturik, irudi bihurturik. Zeren ez dago surrealismoaren etengabeko diskurtsorik. Lupe Gómezen hizkera poetikoak irudia maite du, eta diskurtsoa puskatzea, baina ez da ageri etengabe. Haren oreka landua da. Eta kontagintzaren irudi indartsu batean bukatzen du bere arnasa, poemaren bukaeran, baina ez lehenago. Horregatik, *Camuflaxeko* poemak, niretzat, kopla zahar berrituak dira, irudi batean bukatzen dute beren ibilbidea, eta herriaren senak surrealismoaren bideak baino edertasun egarri handiagoa ematen du.

Orekaren bidean, amarenganako samurtasuna umore pixka batekin nahasten du, batez ere ama haur bihurturik ikusten dugunean bere oporraldi bakarrean:

Lore eta kolore gonak probatzen zenituen
San Frantzisko hondartzara guapa-guapa
joateko.

Lupe Gómezen idazkeran badago surrealismoaren gainetik oso nabarmena den eragin bat. Hain zuzen ere, Antonio Gamoneda poetarena. Aitortu behar dut ez dudala ongi irakurri Gamonedaren poesia, baina begirada bakarra nahikoa da ohartzeko poeta horrek irudia lantzeko erabiltzen duen teknikak fruitua eman duela liburu honetan.

Irudia hizkera poetikoan nagusi bizitzaren dohaina kantatzeko: «Goiz argietako

bizi gogo». Heriotzaren mina sufritzeko:
«Herioa... isiltasun sakoneko besarkada».

Camuflaxe liburua bertso bakar batean
laburbildu du Lupe Gómezek:

Zu nigan zarela eta ni zugan naizela sen-
titu. (75)

Helburu hori lortzeko bidea da liburu
zoragarri hau.

BIBLIOGRAFIA

GÓMEZ, L. (2017). *Camuflaxe*. Chan de Pólvora: Santiago de Compostela.

——— (2018): *Camuflaje/Camuflaxe*. Argitalpen elebiduna (gaztelania eta galegoa). Itzulpena Antón Lopo. Papeles mínimos: Madril.

CASAS, A.: «Glosario para lupernautas». Burghard Baltrusch (ed.): *Lupe Gómez: libre e estranxeira. Estudos e traducións*. Berlin: Frank & Timme, 2013, 159-179.

KORTAZAR, J. (2020): «Caligrafía amada». *El Correo. Territorios*. 2020-03-07.

VANADA, K. (online): «‘Camouflage’ by Lupe Gómez [Why This Book Should Win]». <http://www.rochester.edu/College/translation/threepersent/2020/04/29/camouflage-by-lupe-gomez-why-this-book-should-win/>

VIZOSO, S. (2020): «La menstruación y otras rabias poéticas de Lupe Gómez». *El País*. 2020-01-05.

1

ERDITU NINDUZUN, ERDITU. Hegoekin nentorren.
Hildakoen odola
azpilean bildurik zegoen.
Inauteria zen. Esku-soinuek egia zabala ziotela uste nuen.

Elurra dago, elurra erruz zelaietan eta mintzo naizen hizkuntzan,
behien urdail politikoan.

PARÍCHESME. Traía ás. / O sangue dos mortos estaba gardado / na artesa.
/ Era entroido. Eu cría na sinceridade aberta dos acordeóns. // Hai neve,
moita neve nos campos e na lingua que falo, / dentro do estómago político
das vacas.

2

ERDITU NINDUZUN EMEKI kolpeka
nire gorputzaren perkusio zailean.
Iturrien antzez-hormak lehertzen ziren
gauaren kristalean.

Ni, hegan.

PARÍCHESME GOLPEANDO con suavidade / na percusión difícil do meu
corpo. / As paredes teatrais das fontes rebentaban / no cristal da noite. //
Eu voaba.

3

LAU UME ZENITUEN, eta berrogei urte.
Erditzea sukaldean izan zen,
lurrezko zorua zuen etxe batean.
Nire odola, zure sabel puztuarekiko lotura.

TIÑAS CATRO FILLOS, e corenta anos. / O parto foi na cociña dunha casa
con chan de terra. / O meu sangue era un lazo co teu ventre avultado.

4
AMA KAMUFLATUA. Txorien habia.
Fereka. Berbazko besarkadak.

Hegaztiak ehizatzen nituen.

NAI CAMUFLADA. Niño dos paxaros. / Aloumiño. Apertas lingüísticas. //
Eu cazaba aves.

5
MAITE ZAITUT neure hatz mutuez.
Airearen tximeletez farfaila bat josten dut zuretzat.
Nire begi tristen indar itsuaz
antzezlan bat entseetzen dut zuretzat.

Neure maitasunaz
baso bat egiten dizut.
Hodeiak entzuten ikasten dut, lurra lantzen, zerua irakurtzen
zure altzoan.

QUÉROTE, cos meus dedos mudos. / Coas bolboretas do aire fago para ti
un encaixe. / Coa forza cega dos meus ollos tristes / ensaio para ti unha
obra de teatro. // Co meu amor fágoche / un bosque. // Aprendo a escoitar
as nubes, a traballar a terra e a ler o ceo, / no teu colo.

6
BELDUR IZAN ZINEN
gorputza eten zitzaizunean.
Bakardadean oka egin zenuen behi-kortan
eta umetan sumatutako hotza bota zenuen.

SENTICHES MEDO / cando o teu corpo se quebrou. / Vomitaches ti soa na
corte das vacas / e expulsaches o frío que sentías cando eras nena.

7

ITO EGIN ZINEN minda putzu batean.
Jaso zintuztenean, arnasarik gabe zeunden,

hilik.

AFOGACHES nunha poza de zurro. / Cando te recolleron, estabas sen respiración, // morta.

8

OHITU EGIN ZINEN uzkurtzera laino artean desagertu arte.

Eramanaren ama.

Lurraren alaba.

Urrezko eraztuna.

Antzezle zorionez kamuflatua

paisaiaren hondar goretetan.

Zure aurpegi gorritsua, lanez eta kemenez zamatua.

Zure ile kizkurra, ur berdez gainezka ibaia dirudiela.

Aitaren begiak, Izadiari zabalik,

kontzientzia garbiari,

behi minei,

huriaren inozentziari,

zirraren araztasunari,

ardoaren argi sakratuari,

sentipenen errukiari

garaian gordetako poesiari,

mirarizko memoriari.

Begiak zabalik orgaren kantikei,

uztarriari,

golde emankorrari eta Airearen Santutasun sakonari.

AFIXÉCHESTE A ENCOLLERTE ata desaparecer na néboa. / Nai da paciencia. / Filla da terra. / Anel de ouro. / Actriz felizmente camuflada / nos sublimes restos da paisaxe. / A túa cara colorada e cargada de traballo e entusiasmo. / O teu pelo ondulado en caudaloso río de auga verde. / Os ollos do pai, abertos á Natureza, / á conciencia limpa, / ás vacas íntimas, / á inocencia da chuvia, / á pureza das emocións, / á luz sagrada do viño, / á misericordia das sensacións, / á poesía escondida no hórreo, / á memoria milagrosa. / Ollos abertos aos cánticos do carro, / ao el xugo, / ao fértil arado e á Santidade profunda do Aire.

9

OHERA joaten ginen denok
eta sutondoaren isiltasun politikoan geratzen zinen.
Batzuetan, gazta eskuetan zenuela lokartzen zinen.

Herrixkari distira zerion, Vietcongeko
neska gerrillari bati bezala.

IAMOS todos para a cama / e quedabas no silencio político da lareira. /
Ás veces adormecías co queixo nas mans. // A aldea brillaba, como unha
guerrilleira / do Vietcong.

10

HERIOTZA proiektu politiko bat da.

A MORTE é un proxecto político.

11

HARIZTIAK, ordu hartan,
animaliaz beteriko ipuin bat zirudien. Zuhaitz luzeak, beso eta adarrekin,
enigmak zulatzen ari diren emakumeak bezala.

Elur hotza, isiltasun hotz-epela. Kanta leunak.
Galdera baten egitura irekia kazetari-elkarrizketa
batean. Gutun bidezko adiskide guztiak,
denboraren harresietan bizi diren horiek.

Lasterka abiatu. Paradisuko iturri basetan edan.

A CARBALLEIRA, a aquela hora, semellaba / un conto cheo de animais. Lon-
gas árbores, con brazos e polas, / como mulleres sachando enigmas. // A
neve fría. O silencio morno. As cancións suaves./A estrutura aberta dunha
pregunta nunha entrevista/xornalística. Todas as amizades epistolares/ que
habitan nas murallas do tempo. // Botar a correr. Beber nas fontes salvaxes
do paraíso.

I 2

MENDIAREN BIZKARREZURRA ukitu
ornoz orno.
Bildu, oroitu, gorde zati hautsiak.

TOCAR A COLUMNA vertebral da montaña / vértebra a vértebra. / Recoller,
recordar e gardar os fragmentos rotos.

I 3

—EGINGO DIOGU argazki bat aireari?
—Ezinezkoa da heriotzaren kantei argazkia ateratzea.
Hobe da beren kasa mintzatzen uztea.

—FACÉMOSLLE unha foto ao aire? / —É imposible retratar os cantares da
morte. / É mellor que se expresen libremente.

I 4

GEHIAGO GUSTATZEN ZAIT
gutunak hildakoei idaztea biziei baino.
Hildakook hobeto entzuten duzue. Amak ez zarete inoiz hiltzen.
Baudelaireren odol purpura bihurtzen zarete.

Masusta-likore.

GÚSTAME MÁIS / escribir cartas para persoas mortas que para persoas vivas. /
Os mortos escoitades mellor. As nais nunca morredes. / Transformádesvos
en sangue púrpura de Baudelaire. // Licor de mora.

I 5

HERIO zaldi zuri bat zen, ibaian bainatzen.

A MORTE era un caballo branco bañándose nun río.

Resumen

Este artículo presenta el libro *Camuflaxe*, de la poeta gallega Lupe Gómez (Fisteus, A Coruña, 1972), una de las grandes representantes de la lírica gallega actual. *Camuflaxe* expone con una gran fuerza evocativa el retrato de su madre y su muerte. En la aventura de la vida materna, la hija toma la imagen de su madre, y la madre, en su vejez, se convierte en una niña. *Camuflaxe* convierte en poesía ese proceso vital y emotivo.

Résumé

Cet article présente le livre *Camuflaxe* de la poète galicienne Lupe Gómez, (Fisteus, A Coruña, 1972), l'une des plus grandes représentantes de la poésie galicienne actuelle. L'ouvrage *Camuflaxe* exprime avec force la figure de la mère et de la mort. Dans l'aventure maternelle, la fille devient sa mère, et la mère, dans son âge avancée, devient un enfant. *Camuflaxe* transforme ce processus vital et émotionnel en poésie.

Abstract

This article presents the book *Camuflaxe*, by Galician poet Lupe Gómez (Fisteus, A Coruña, 1972), one of the greatest authors of Galician lyrical poetry today. With great evocative power, *Camuflaxe* paints a portrait of the author's mother and her death. Along the way, the daughter takes on the image of her mother, and the mother, in her old age, takes on that of a child. *Camuflaxe* turns that journey into poetry.